

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

8532

76/2007 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 11an emana, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onartu duena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak goitik behera berritu zuen zerga hau: zerga karga modu orokorrean murriztu zuen eta aurrezpenerako produktuen artean zerga tratamendu neutrala ezarri zuen, besteak beste.

Orain orduko berrikuntza haiek osatu behar dira, Foru Arauko artikulua batzuetan ezarrita baitago arau bidezko garapena baliatuko dela gai batzuk arautzeko.

Hori dela eta, honen bitartez onartutako araudiak bi gaikuntza iturri dauzka: batetik Foru Arauan bertan berariaz egindako aipamenak eta bestetik azken xedapenetatik bigarrena, Foru Aldundiari hura garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko baimena eman diona.

Araudiak 131 artikulua dauzka zazpi titulutan banatuta. Egitura aurreko araudiarena bera da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan ezarritakoaren arabera egin beharreko berrikuntzak egin badira ere.

Araudiaren egituraren berrikuntza nagusia I. titulua da. Titulu honetan lekualdatutako langileen araubide berezia garatu da: zer den, iraupena eta mugak; langile hauek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzea hauta dezakete.

Salbuetsitako errentak direla eta, berrikuntza hauek aipatu behar dira: lurralde administrazio publikoek ematen dituzten laguntza publikoen salbuespenei buruzko artikulua bat sartu da; goi mailako kirolarientzako laguntzetan salbuesten den kopurua gehitu da; urteko aldi batean atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinetatik salbuesten den zenbatekoa zehazteko erregelak ezarri dira.

Lanaren etekinei dagokienez, joan-etorrietarako dieta eta diru kopuruetatik kargatik salbuetsita dagoen zenbatekoa gehitu da: 0,29 euro kilometroko 2008ko urtarilaren 1etik aurrera. Halaber, akzioen gaineko eskubidea baliatzen den kasuetan salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko kontuan eduki beharreko kopurua eguneratu da.

Jarduera ekonomikoen etekinak zehazteaz denaz bezainbatean, Araudia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan lehen bereizten ziren prozeduren ezabakuntzara egokitu da, eta erregela bereziak ezarri dira basogintzaren, ardogintzaren eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren etekin garbia zehazteko.

Higiezinaren kapitalaren etekinak hizpide hartuta, ohiko etxebizitzaren errentamenduaren zerga-ordainketako araubidearen aplikazioa hedatu da Etxebizitza Hutsaren Programako etxebizitza lagapenetara eta etxebizitzaren errentamenduaren araubide berezia aplikatu ahal zaien erakundeei egiten zaizkien etxebizitza lagapenetara.

Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, arautegia egokitu behar izan da bi urte baino aldi luzeagoan sortutako edo denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako etekinen ziozko txikipena aurrezpenaren errenta ez diren etekinei ez aplikatzearen ondorioz.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

8532

DECRETO FORAL 76/2007, del Consejo de Diputados de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, abordó una reforma integral de este tributo caracterizada, entre otras cosas, por una reducción generalizada de la carga fiscal y el establecimiento de un tratamiento fiscal neutral entre los distintos productos destinados al ahorro.

La citada reforma necesita ser completada debido a que, en diversos artículos de la Norma Foral, se invoca al desarrollo reglamentario para la regulación de determinadas cuestiones.

En consecuencia, el Reglamento que se aprueba encuentra su habilitación normativa tanto en las remisiones específicas que efectúa la propia Norma Foral, como en su Disposición Final Segunda que autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y ejecución.

El Reglamento se compone de 131 artículos divididos en siete Títulos y su estructura respeta la del anterior Reglamento, incorporando aquellas novedades requeridas por lo establecido en la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La principal novedad en la estructura del Reglamento es la inclusión del Título I, dedicado a desarrollar el régimen especial aplicable a los trabajadores desplazados que podrán optar por tributar por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, concretando su contenido, duración y demás aspectos delimitadores.

Cabe mencionar, respecto a las rentas exentas, la inclusión de un artículo dedicado a las exenciones de las ayudas públicas concedidas por las Administraciones Públicas territoriales; el incremento de la cuantía exenta en el caso de las ayudas a los deportistas de alto nivel y la incorporación de reglas para determinación del importe exento, en el caso de los rendimientos del trabajo percibidos por la realización de trabajos en el extranjero durante parte del año.

Respecto a los rendimientos del trabajo, se ha incrementado el importe exento de gravamen correspondiente a dietas y asignaciones para gastos de locomoción, hasta los 0,29 euros por kilómetro, previéndose que entre en vigor el 1 de enero de 2008. Asimismo, en el supuesto del ejercicio de derechos de opciones sobre acciones se actualiza el importe que permite el cálculo de la cuantía exenta.

En cuanto a la determinación del rendimiento de actividades económicas, se adecúa el Reglamento a la supresión de los distintos procedimientos en los que se dividía, con la anterior normativa, la modalidad simplificada del método de estimación directa y se establecen las reglas especiales para la determinación del rendimiento neto de la actividad forestal y de la actividad de elaboradores de vino y agrícolas, ganaderas o pesqueras.

En los rendimientos del capital inmobiliario se extiende la aplicación del régimen de tributación del arrendamiento de vivienda habitual a la cesión de vivienda al "Programa Vivienda Vacía" o cedidas a entidades a las que sea de aplicación el régimen especial de arrendamiento de viviendas.

Respecto a los rendimientos del capital mobiliario, se adapta la regulación como consecuencia de la no aplicación de las reducciones por obtención de rendimientos con período de generación superior a dos años o de forma notoriamente irregular en el tiempo a aquellos rendimientos que forman parte de la renta del ahorro.

Enpresetako jantokietan etekintzat hartu ezin diren gauzak jasotzen dira; bada, prestazio hauen zenbatekoa 7,81 eurotik 9ra pasatu da. Horrez gainera txartelak eta bestelako ordainera elektronikoko ezarri dira zerbitzua zeharkako formulen bitartez ematen denerako: 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean. Ildo beretik, gauzatan jasotzen diren errentei dagokienez, heriotza eta elbarritasuneko arrisku garbiko talde aseguruaren primetan salbuetsitako kopuruaren muga ezarri da, eta finkatu da langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen diren kopuruak ez direla hartuko ordainsarizat.

Kenkarietara helduta, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan ezarritako sistemara egokitzeak erabat erraztuko du ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkaria. Gainera, nor bere lokal bat ohiko etxebizitza gisa gaitzea landu da: zergadunak hamabi hileko epea edukiko du bertan bizitzen hasteko lehen okupazio edo erabilpenerako lizentzia jasoz gero.

Zergaren kudeaketa dela eta, sindikatuen, alderdi politikoen eta ezinduen ondare babestuen titularren informazio betebeharrak ezarri dira, eta sindikatuen eta alderdi politikoen kasuetan kenkariaren eraginkortasuna behar den eredu informatiboa erabiltzearekin lotu da.

Azkenik, aipatu behar da ez direla aldatu indarreko atxikipenen eta konturako sarreraren ehunekoak ez haiei buruzko arautegiaren egitura.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Kontsultarako Batzordeak egin duena aztertu dira.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero, hauxe

XEDATU DUT:

I. TITULUA

LEKUALDATUTAKO LANGILEAN ARAUBIDE BEREZIA

1. artikulua.- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ordainketarako araubide bereziaren edukia.

1. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ordainketarako araubide berezia aplikatzeak berekin dakar Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zorra zehazteko Espainiako lurraldean lortutako errentak soilik kontuan hartzea, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginean establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruz ezarritako arauekin bat etorriz (I. kapituluko 5, 6, 8, 9, 10 eta 11. artikuluko salbu).

2. Erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Araubide berezi hau hautatzen duten zergadunek bereiz ordainduko dute kargapeko errentaren sortzapen bakoitzeko (guztirakoa zein partziala); ezin izango dituzte konpentsatu batzuk besteekin.
- b) Errenta bakoitzaren likidazio oinarria bereiz kalkulatu da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- c) Kuota osoa kalkulatzeko likidazio oinarriari Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24.1. artikuluan ezarritako karga tasa egokia aplikatu behar zaio.
- d) Kuota diferentziala kalkulatzeko Zergaren kuota osoari Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan ezarritako kenkariak aplikatu behar zaizkio. Artikulu horretako b) letran ezarritakoaren ondorioetarako, hurrengo 3. idatz zatian aipatutako konturako sarrerak ez ezik Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kontura ordaindutako kuotak ere izango dira kengari.

3. Araubide berezi honetako atxikipenak eta konturako ordainketen kontzeptuan egiten diren konturako sarrerak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorriz egin behar dira. Hala ere, araudi honetako 102.2.a) artikuluan ezarritakoa gertatzen denean, zergadunei zerbitzuak egiten dizkieten erakunde egoi-

Las prestaciones en especie que no tienen consideración de rendimientos, en el caso de los comedores de empresa, incrementan su importe de 7,81 a 9 euros, a la vez que se introducen, cuando se utilicen formulas indirectas de prestación del servicio, las tarjetas y demás medios electrónicos de pago, estableciéndose su entrada en vigor el día 1 de enero de 2008. Asimismo, en las rentas en especie, se regula el límite exento en las primas de seguros colectivos de riesgo puro para muerte e invalidez y la no consideración de retribución en los supuestos de las cantidades destinadas a habitar al personal empleado en la utilización de nuevas tecnologías.

En cuanto a las deducciones, la adaptación al sistema previsto en la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, simplifica considerablemente la deducción por adquisición de vivienda habitual. Se incorporan, asimismo, referencias a la habilitación de locales en propiedad como vivienda habitual, teniendo el contribuyente un plazo de doce meses para habitarla, a partir del otorgamiento de la licencia de primera ocupación o utilización.

En lo referente a la gestión del Impuesto, se incluyen las obligaciones de información de sindicatos, partidos políticos y titulares de patrimonios protegidos de discapacitados, vinculando la efectividad de deducción, en el supuesto de las dos primeras, a su inclusión en el modelo informativo correspondiente.

Por último destacar que no se modifican ni los porcentajes ni la estructura de la regulación dedicada a las retenciones y a los ingresos a cuenta que están en vigor.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

TÍTULO I

RÉGIMEN ESPECIAL APLICABLE A LOS TRABAJADORES DESPLAZADOS

Artículo 1.- Contenido del régimen especial de tributación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

1. La aplicación del régimen especial de tributación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes implicará la determinación de la deuda tributaria del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas exclusivamente por las rentas obtenidas en territorio español, con arreglo a las normas establecidas en el texto refundido de la Ley del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2004, de 5 de marzo, para las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente, salvo lo dispuesto en los artículos 5, 6, 8, 9, 10 y 11 del Capítulo I del citado texto refundido.

2. En particular, se aplicarán las siguientes reglas:

- a) Los contribuyentes que opten por este régimen especial tributarán de forma separada por cada devengo total o parcial de la renta sometida a gravamen, sin que sea posible compensación alguna entre aquéllas.
- b) La base liquidable de cada renta se calculará para cada una de ellas de acuerdo con lo establecido en el artículo 23 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- c) La cuota íntegra se obtendrá aplicando a la base liquidable los tipos de gravamen previstos en el artículo 24.1 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- d) La cuota diferencial será el resultado de minorar la cuota íntegra del Impuesto en las deducciones en la cuota a que se refiere el artículo 25 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. A los efectos previstos en la letra b) del citado artículo 25, además de los pagos a cuenta a que se refiere el apartado 3 siguiente, también resultarán deducibles las cuotas satisfechas a cuenta del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

3. Las retenciones e ingresos a cuenta en concepto de pagos a cuenta de este régimen especial se practicarán de acuerdo con lo establecido en la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No obstante, cuando concurren las circunstancias previstas en el artículo 102.2.a) de este Reglamento, estarán obligados a retener

liarrek edo establezimendu iraunkorrek atxikipenak aplikatu beharko dizkiete haiek Espainiako lurraldean lortzen dituzten errentei.

Araudi honetako 127. artikuluan ezarritako betebeharrak formalak betetzeko, aurreko paragrafoan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortzen diren errentetarako ezarritako aitortpen eredueta jaso behar dira.

4. Araubide berezi hau aplikatzen zaien zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egin eta aurkeztu behar dute Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartzen duen erudian. Honek eredu hau nola, non noiz eta aurkeztu behar den finkatuko du, eta ereduaren edukia Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren aitortpenerako ezarritako ereduaren arabera izango da.

Autolikidazioa aurkeztearekin batera zergadunek euren zerga zorra zehaztu beharko dute eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan eta epean sartu. Aitortpenaren emaitza zergadunari dirua itzuli beharra bada, Zergari buruzko Foru Arauko 113. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri izuliko zaio.

5. Araubide berezi hau hautatzen duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek Espainiako lurraldean dauden ondasun higiezinak eskualdatzen badituzte, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24.2. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. artikulua.- Iraupena.

Araubide berezi hau zergadunak bere zerga egoitza Espainian finkatzen duen zergaldian eta hurrengo bostetan aplikatuko da, araudi honetako 4 eta 5. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe.

3. artikulua.- Araubide berezia hautatzea.

1. Zergadun batek araubide honi heldu nahi badiu zerga-ordainketerako, berriematea bidali behar du Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera jarduerari ekin dion egunetik sei hilabete pasatu baino lehen. Data hori Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo, bestela, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriarekin jarraitzea ahalbideratzen duen dokumentazioan ageri da.

2. Hautapenari buruzko berriematearen nondik norakoak araudi honetako 6. artikuluan finkatu dira.

3. Ezin izango diote heldu araubide honi lanaren etekinen gaineko atxikipenak edo konturako sarrerak zehazteko araudi honetako 109. artikuluan ezarritako prozedura berezia hautatzen duten zergadunek.

4. Arabako Foru Aldundiak, araudi honetako 6. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorri, araubide hau hautatzen utziko die beste lurralde batetik (foru lurraldea zein lurralde erkidea) Arabara etorri eta euren zerga egoitza bertan finkatzen duten zergadunei, bai eta egoitza aldaketak ondorioak izan aurreko epealdian titulu honetan araututakoaren baliokidea den araubidea aplikatu zaienei ere, ezarritako gainerako baldintzak betez gero.

Araudi honetako 2. artikuluan aplikazio epealdiaren zenbaketaz ezarritakoaren ondorioetarako, foru lurraldean zein lurralde erkidean titulu honetan araututakoaren baliokidea den araubide berezia aplikatu den zergaldi guztiak hartu behar dira kontuan.

4. artikulua.- Araubideari uko egitea.

1. Araubide berezi hau hautatzen duten zergadunek uko egin ahal izango diote aplikazioari ukoak ondorioak sortu behar dituen egutegiko urtearen aurreko azaroan eta abenduan zehar.

2. Araubideari uko egiteko prozedura hau bete behar da:

a) Lehenbizi, zergadunak araudi honetako 108. artikuluan ezarritako datu berriematea aurkeztu behar dio atxikitzaileari, eta honek kopia bat itzuliko dio zigitatuta.

las entidades residentes o los establecimientos permanentes en los que presten servicios los contribuyentes, en relación con las rentas que éstos obtengan en territorio español.

El cumplimiento de las obligaciones formales previstas en el artículo 127 de este Reglamento, por las retenciones e ingresos a cuenta a que se refiere el párrafo anterior, se realizará mediante los modelos de declaración previstos para el Impuesto sobre la Renta de no Residentes para las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente.

4. Los contribuyentes a los que resulte de aplicación este régimen especial estarán obligados a presentar y suscribir la autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el modelo que se apruebe por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, el cual establecerá la forma, el lugar y los plazos de su presentación, y cuyo contenido se ajustará a los modelos de declaración previstos para el Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Al tiempo de presentar su autoliquidación, los contribuyentes deberán determinar la deuda tributaria correspondiente e ingresarla en el lugar, la forma y los plazos que determine el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos. Si resultara una cantidad a devolver, la devolución se practicará de acuerdo con lo señalado en el artículo 113 de la Norma Foral del Impuesto.

5. A las transmisiones de bienes inmuebles situados en territorio español realizadas por los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que opten por la aplicación de este régimen especial les resultará de aplicación lo previsto en el artículo 24.2 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Artículo 2.- Duración.

Este régimen especial se aplicará durante el período impositivo en el que el contribuyente adquiera su residencia fiscal en España, y durante los cinco períodos impositivos siguientes, sin perjuicio de lo establecido en los artículos 4 y 5 de este Reglamento.

Artículo 3.- Ejercicio de la opción.

1. El ejercicio de la opción de tributar por este régimen especial deberá realizarse mediante una comunicación dirigida al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, en el plazo máximo de seis meses desde la fecha de inicio de la actividad que conste en el alta en la Seguridad Social en España o en la documentación que le permita, en su caso, el mantenimiento de la legislación de Seguridad Social de origen.

2. La opción se ejercitará mediante la presentación de la comunicación a que se refiere el artículo 6 de este Reglamento.

3. No podrán ejercitar esta opción los contribuyentes que se hubieran acogido al procedimiento especial para determinar las retenciones o ingresos a cuenta sobre los rendimientos del trabajo previsto en el artículo 109 de este Reglamento.

4. La Diputación Foral de Álava, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 6 de este Reglamento, admitirá la opción ejercitada por aquellos contribuyentes que adquieran la residencia fiscal en Álava procedentes de otro territorio, foral o común y a los que en el período inmediatamente anterior a aquél en que el cambio de residencia a Álava ha surtido efectos les fue de aplicación un régimen equivalente al regulado en este Título, y se cumplan el resto de requisitos previstos en el mismo.

A los efectos de lo previsto en el artículo 2 de este Reglamento para el cómputo del plazo de aplicación, se deberán tener en cuenta todos los períodos impositivos en los que se haya aplicado un régimen especial equivalente al regulado en el presente Título en cualquier territorio, foral o común.

Artículo 4.- Renuncia al régimen.

1. Los contribuyentes que hubieran optado por este régimen especial podrán renunciar a su aplicación durante los meses de noviembre y diciembre anteriores al inicio del año natural en que la renuncia deba surtir efectos.

2. La renuncia se efectuará de acuerdo con el siguiente procedimiento:

a) En primer lugar, presentará a su retenedor la comunicación de datos prevista en el artículo 108 de este Reglamento, quien le devolverá una copia sellada de aquélla.

b) Gero, Zerga Administrazioari aurkeztu behar dio araudi honetako 6. artikuluan ezarritako ereduaren arabera berriematea, aurreko letran aipatutako berriematearen kopia zigitatua erantsita.

3. Araubide berezi honi uko egiten dioten zergadunek ezin aplikatu izango dute gehiago.

5. artikulua.- Araubidetik baztertzea.

1. Araubide berezi hau aplikatzea hautatzen duen zergadun batek haren aplikazioan zehar beharrezko baldintzetako bat betetzen ez badu, araubidetik bazter geratuko da. Baztertzeak baldintza betetzen ez duen zergaldian sortuko ditu ondorioak.

2. Araubidetik bazter geratzen diren zergadunek horren berri eman beharko diote Zerga Administrazioari ezarritako baldintzetako bat betetzeari uzten dioten egunetik zenbatuko den hilabete pasatu baino lehen araudi honetako 6. artikuluan aipatutako ereduaz baliatuta.

3. Atxikipean eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauekin bat etorritik aplikatuko dira zergadunak bere atxikitzeari araubide bereziari heltzeko baldintzak bete dituela jakinarazten dionetik (aurreko idatz zatian aipatutako berriematearen kopia erantsi behar da). Horrez gainera araudi honetako 108. artikuluan ezarritako datu berriematea ere aurkeztu behar dio atxikitzaileari.

Hala ere, atxikitzaileak Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 3. idatz zatiko c), d) eta e) letretan ezarritako baldintzetako bat ez dela betetzen jakinez gero, atxikipean eta konturako sarrerak ordutik aurrera aplikatuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauekin bat etorritik.

Atxikipean tasa berria araudi honetako 107.2. artikuluko 3. erregelaren arabera kalkulatu da.

4. Araubide berezi honetatik bazter uzten diren zergadunek ezin aplikatu izango dute gehiago.

6. artikulua.- Zerga Administrazioarentzako berriemateak eta araubidea egiaztatzea.

1. Araubide hau aplikatzea hautatzen duenak berriematea bidali behar du Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera.

Bertan datu hauek adierazi behar dira, besteak beste: langilearen identifikazioa, enplegatzailearena eta, behar izanez gero, zerbitzuak egin zaizkion enpresa edo erakundearen (Espainiako egoiliarra) edo establezimendu iraunkorarena, Espainiako lurraldean noiz sartu den eta jarduerari noiz ekin dion (data hori Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo, bestela, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriarekin jarraitzea ahalbideratzen duen dokumentazioan ageri da).

Horrez gainera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Enplegatzaile batekin lan edo estatu harremanak (arruntak zein bereziak) hasi badira Espainian, hark emandako frogagiria, zergadunarekiko lan edo estatu harremanak aitortzen dituen, lana Espainian egingo dela egiaztatzen duena eta datu hauek zehazten dituen: noiz ekin zaion jarduerari (Espainiako Gizarte Segurantzaren altan ezarritako data), zein den lan zentroa eta non dagoen, eta lan kontratuaren iraupena.

b) Lekualdatzea enplegatzaileak agindu badu Espainiako egoiliar den enpresa edo erakunde bati edo Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati zerbitzuak egiteko, honek zerbitzugintza aitortzeko emandako frogagiria. Frogagiri honekin batera enplegatzailearen lekualdatze gutunaren kopia aurkeztu behar da, eta bertan, aurreko aitortpenaz batera jarduerari noiz ekin zaion (data hau Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo, bestela, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriarekin jarraitzea ahalbideratzen duen dokumentazioan ageri da), lan zentroa zein den eta non dagoen eta lekualdatzeak zenbat iraungo duen zehaztu behar da, eta lana Espainian egingo dela egiaztatuta.

b) En segundo lugar, presentará ante la Administración tributaria el modelo de comunicación previsto en el artículo 6 de este Reglamento y adjuntará la copia sellada de la comunicación a que se refiere la letra anterior.

3. Los contribuyentes que renuncien a este régimen especial no podrán volver a optar por su aplicación.

Artículo 5.- Exclusión del régimen.

1. Los contribuyentes que hubieran optado por la aplicación de este régimen especial y que, con posterioridad al ejercicio de la opción, incumplan alguna de las condiciones determinantes de su aplicación quedarán excluidos de dicho régimen. La exclusión surtirá efectos en el período impositivo en que se produzca el incumplimiento.

2. Los contribuyentes excluidos del régimen deberán comunicar tal circunstancia a la Administración tributaria en el plazo de un mes desde el incumplimiento de las condiciones que determinaron su aplicación, mediante el modelo de comunicación a que se refiere el artículo 6 de este Reglamento.

3. Las retenciones e ingresos a cuenta se practicarán con arreglo a las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, desde el momento en que el contribuyente comunique a su retenedor que ha incumplido las condiciones para la aplicación de este régimen especial, adjuntando copia de la comunicación a que se refiere el apartado anterior. Al mismo tiempo, presentará a su retenedor la comunicación de datos prevista en el artículo 108 de este Reglamento.

No obstante, cuando el retenedor conozca el incumplimiento de las condiciones previstas en las letras c), d) o e) del apartado 3 del artículo 4 de la Norma Foral del Impuesto, las retenciones e ingresos a cuenta se practicarán con arreglo a las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas desde el momento en que tenga conocimiento del incumplimiento.

El cálculo del nuevo tipo de retención se efectuará de acuerdo con lo previsto en la regla 3ª del artículo 107.2 de este Reglamento.

4. Los contribuyentes excluidos de este régimen especial no podrán volver a optar por su aplicación.

Artículo 6.- Comunicaciones a la Administración tributaria y acreditación del régimen.

1. La opción por la aplicación del régimen se ejercitará mediante comunicación al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

En la citada comunicación se hará constar, entre otros datos, la identificación del trabajador, del empleador y, en su caso, de la empresa o entidad residente en España o del establecimiento permanente para el que se presten los servicios, la fecha de entrada en territorio español y la fecha de inicio de la actividad que conste en el alta en la Seguridad Social en España o en la documentación que permita, en su caso, el mantenimiento de la legislación de Seguridad Social de origen.

Asimismo, se adjuntará la siguiente documentación:

a) Cuando se inicie una relación laboral, ordinaria o especial, o estatutaria con un empleador en España, un documento justificativo emitido por el empleador en el que se exprese el reconocimiento de la relación laboral o estatutaria con el contribuyente, la fecha de inicio de la actividad que conste en el alta en la Seguridad Social en España, el centro de trabajo y su dirección, la duración del contrato de trabajo y que el trabajo se realizará efectivamente en España.

b) Cuando se trate de un desplazamiento ordenado por su empleador para prestar servicios a una empresa o entidad residente en España o a un establecimiento permanente situado en territorio español, un documento justificativo emitido por estos últimos en el que se exprese el reconocimiento de la prestación de servicios para aquéllos, al que se adjuntará copia de la carta de desplazamiento del empleador, la fecha de inicio de la actividad que conste en el alta en la Seguridad Social en España o en la documentación que permita, en su caso, el mantenimiento de la legislación de Seguridad Social de origen, el centro de trabajo y su dirección, la duración de la orden de desplazamiento y que el trabajo se realizará efectivamente en España.

2. Zerga Administrazioak, berriematea aztertu ondoren, araubide berezi hau aplikatzea hautatu duela adierazten duen frogagiria bidaliko dio zergadunari, bidezkoa bada, eta bidali ere berriematea aurkeztu eta 10 egun balioudun pasatu baino lehen.

Agiri honen bitartez zergadunak araubide berezi honi heldu diola frogatu ahal izango die atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar dizkioten pertsoneri eta erakundeei. Horretarako, agiriaren ale bat eman behar die.

3. Beste lurralde batetik (foru lurraldea zein lurralde erkidea) Arabara etorri eta euren zerga egoitza bertan finkatzen duten zergadunek (araudi honetako 3. artikuluko 4. idatz zatian aipatuek) egoitza aldaketak ondorioak sortu aurreko zergaldian titulu honetan araututakoaren baliokidea den araubide berezia aplikatu zaiela frogatu behar dute, bai eta titulu honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela ere. Gainera, zein lurraldetatik etorri diren zehaztu behar dute, eta frogatu.

II. TITULUA SALBUETSITAKO ERRENTAK

7. artikulua.- Langilea kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik ematen diren kalte-ordainak.

Zergari buruzko Foru Arauko 9.4. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da langileak enpresarekin inolako loturarik ez edukitzea. Besterik frogatu ezean, langile bat kaleratu edo lana utzarazi ondoko hiru urteko epealdian enpresa berari edo hari lotutako bati (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluan araberako lotura) zerbitzuak egiten hasiz gero, lotura badagoela pentsatuko da, baldin eta, lotura bazkidezozietate harremanen arabera zehazten denean, partaidetza %25ekoa edo handiagoa bada, edo %5ekoa edo handiagoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/CE Zuzentarauko III. tituluan finantza tresnen merkatuek zehaztutako araupeko balore merkatuetan negoziatzeko onartzen diren baloreen kasuan.

8. artikulua.- Giza eskubideak aldeztarren eta sustatzearen egindako lanengatik emandako sarien eta literaturaren, artearen edo zientziaren arloetako sarien salbuespenak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9.8. artikuluan ezarritako salbuespena dela eta, ondoko sariak zehaztu dira:

a) Giza eskubideak aldeztarren edo sustatzearen emandako saria da pertsona bati edo batzuei giza eskubideak sustatzeko eta eraikitzeke egin duten lana goraiatzeko ondasun edo eskubideren bat ematea.

b) Literaturaren, artearen edo zientziaren arloko saria da pertsona bati edo batzuei kontraprestaziorik eskatu gabe ondasun edo eskubideren bat ematea literatura, arte edo zientziaren arloko lanen edo, orokorrean, arlo horietako jarduna goraiatzeko edo saritzeko.

2. Saria ematen duenak ezin egin izango du saritutako lanaren edo lanen ustiapen ekonomikoa, eta ezin du eduki horretarako interesik.

Hain zuzen ere, sariak ez du eragingo sarituriko lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideen lagapenik edo mugaketarik (jabetza intelektualaren edo industrialaren eraginezkoak ere barne).

Betekizun hau ez da ez betetzat joko lana jendaurratze hutsagatik, irabazteko asmorik ez badago eta sei hilabete baino gutxiago irauten badu.

3. Nolanahi ere, saria deialdia baino lehen egindako lanei edo garranturiko jarduerari eman behar zaie.

Ez dira sari salbuetiak bekak, laguntzak eta, oro har, artikuluko honetako 1. idatz zatian aipatutako arloetako lanak finantzatzeko aldi berean edo amaitu ondoren erabiltzen diren kopuruak.

2. La Administración tributaria, a la vista de la comunicación presentada, expedirá al contribuyente, si procede, en el plazo máximo de los 10 días hábiles siguientes al de la presentación de la comunicación, un documento acreditativo en el que conste que el contribuyente ha optado por la aplicación de este régimen especial.

Dicho documento acreditativo servirá para justificar, ante las personas o entidades obligadas a practicar retención o ingreso a cuenta, su condición de contribuyente por este régimen especial, para lo cual les entregará un ejemplar del documento.

3. Cuando se trate de contribuyentes que adquieren su residencia fiscal en Álava procedentes de otro territorio, foral o común, a los que se refiere el apartado 4 del artículo 3 de este Reglamento, deberán acreditar que, en el período impositivo inmediatamente anterior al que el cambio de residencia a Álava surta efectos, le fue de aplicación un régimen especial equivalente al previsto en este Título, el cumplimiento de los restantes requisitos previstos en este Título, así como el territorio foral o común desde el que efectúan el cambio de residencia a Álava.

TÍTULO II RENTAS EXENTAS

Artículo 7.- Indemnizaciones por despido o cese del trabajador.

El disfrute de la exención prevista en el artículo 9.4º de la Norma Foral del Impuesto quedará condicionado a la real y efectiva desvinculación del trabajador con la empresa. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que no se da dicha desvinculación cuando en los tres años siguientes al despido o cese, el trabajador vuelva a prestar servicios a la misma empresa o a otra empresa vinculada a aquella en los términos previstos en el artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, siempre que en el caso en que la vinculación se defina en función de la relación socio-sociedad la participación sea igual o superior al 25 por 100 o al 5 por 100, si se trata de valores admitidos a negociación en alguno de los mercados regulados de valores definidos en el Título III de la Directiva 2004/39/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 21 de abril de 2004 relativa a los mercados de instrumentos financieros.

Artículo 8.- Exención de premios relevantes relacionados con la defensa y promoción de los derechos humanos, literarios, artísticos o científicos.

1. A efectos de la exención prevista en el artículo 9.8º de la Norma Foral del Impuesto, tendrá la consideración de:

a) Premio relevante relacionado con la defensa y promoción de los derechos humanos, la concesión de bienes o derechos, a una o varias personas, en recompensa o reconocimiento por su labor en favor de la promoción y construcción de los Derechos Humanos.

b) Premio relevante literario, artístico o científico, la concesión de bienes o derechos a una o varias personas, sin contraprestación, en recompensa o reconocimiento al valor de obras literarias, artísticas o científicas, así como al mérito de su actividad o labor, en general, en tales materias.

2. El concedente del premio no podrá realizar o estar interesado en la explotación económica de la obra u obras premiadas.

En particular, el premio no podrá implicar ni exigir la cesión o limitación de los derechos de propiedad sobre la obra u obras premiadas, incluidos los derivados de la propiedad intelectual o industrial.

No se considerará incumplido este requisito por la mera divulgación pública de la obra, sin finalidad lucrativa y por un período de tiempo no superior a seis meses.

3. En todo caso, el premio deberá concederse respecto de obras ejecutadas o actividades desarrolladas con anterioridad a su convocatoria.

No tendrán la consideración de premios exentos las becas, ayudas y, en general, las cantidades destinadas a la financiación previa o simultánea de obras o trabajos relativos a las materias citadas en el apartado 1 de este artículo.

4. Deialdiak betekizun hauek bete behar ditu:

- a) Ezin da inolako mugarik ezarri parte-hartzaileen kopuruan sariaren berezko izateaz aparte arrazoiengatik.
- b) Iragarkia Estatuaren Aldizkari Ofizialean, deialdia egiten duen autonomia erkidegoaren aldizkari ofizialean edo lurralde historikoetako bateko aldizkari ofizialean argitaratu behar da.

Atzerrian deitzen diren sariei eta nazioarteko erakundeek deitzen dituztenei salbuespena aplikatu ahal izateko nahiko izango da idatz zati honetako a) letran ezarritakoa betetzea, sariaren garrantzia eta publizitatea frogatzeaz gainera.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak adierazi behar du. Adierazpena ondokoak eskatu behar du (eskaerarekin batera aurreko idatz zatietan ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztuta):

- a) Oro har, sariaren deialdia egin duen pertsonak edo erakundeak.
- b) Saria Lurralde Historikoaz kanpokoa bada, pertsona sarituak.

Eskaera saria eman aurretik aurkeztu behar da, edo, idatz zati honetako b) letran aipatutako kasuan, saria lortu den ekitaldiko autoliquidazioa aurkezteko arauz ezarritako epealdia hasi baino lehen.

Administrazioak espedienteak ebazteko bidezko iruditzen zaizkion txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

Prozeduraren ebazpena sei hilabete igaro baino lehen jakinarazi behar da. Epealdi horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo behar da.

Adierazpenak hurrengo deialdietarako ere balioko du, baldin eta deialdiaren batean salbuespena emateko kontuan hartu beharreko inguruabarrak aldatzen ez badira.

Beste zerga administrazio batzuek egindako salbuespen adierazpenek ondorioak izango dituzte lurralde historiko honetan.

6. Zerga Administrazioak salbuespena adieraziz gero, aurreko 5. idatz zatiko a) letran aipatutako pertsonak edo erakundeek sariaren inguruko ondoko datuak jakinarazi behar dizkiote saria ematen denetik hilabete pasatu baino lehen: saria eman den eguna, nolakoa den saria eta onuradunaren identifikazio datuak.

Salbuespenetako sariaren hurrengo deialdietan salbuespena aplikatu ahal izateko nahiko izango da aurreko paragrafoan aipatutako berriematea bidaltzea, eta harekin batera sariaren deialdiaren oinarrien ale bat eta, behar izanez gero, artikulua honetako 4. idatz zatiko b) letran ezarritakoa betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa.

9. artikulua.- Kirolarientzako laguntza ekonomikoaren salbuespena.

Zergari buruzko Foru Arauko 9.15. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuespena daude kirolariek trebakuntzako programen barruan jasotzen dituzten laguntza ekonomikoak (muga: 60.100 euro urtean), baldintza hauek betez gero:

- a) Onuraduna goi mailako kirolaria izan behar da, aplikatu beharreko legeriarekin bat etorriz.
- b) Laguntza kirolaren arloko eskumenak dituzten erakundeek finantzatu behar dute, zuzenean edo zeharbidez.

10. artikulua.- Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparte haborokinen eta prestazio publikoen salbuespena.

Zergari buruzko Foru Arauko 9.16. artikuluan ezarritakoari dagozkionez, salbuespena daude nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan diharduten kideei ordaintzen zaizkien ondoko kopuru publikoak:

- a) Mota guztietako aparte haborokinak, nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan jarduteari dagozkionak.
- b) Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan jasandako gaitz fisiko edo psikikoaren zioz ordaindutako kalte-ordainak edo prestazioak.

4. La convocatoria deberá reunir los siguientes requisitos:

- a) No establecer limitación alguna respecto a los participantes por razones ajenas a la propia esencia del premio.
- b) Que su anuncio se haga público en el Boletín Oficial del Estado, de la Comunidad Autónoma convocante o de alguno de los Territorios Históricos.

Para acceder a la exención, los premios que se convoquen en el extranjero o por Organizaciones Internacionales sólo tendrán que cumplir el requisito contemplado en la letra a) de este apartado y, además, acreditar la relevancia del premio y su publicidad.

5. La exención deberá ser declarada por la Administración tributaria. Esta declaración deberá ser solicitada, con aportación de la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos previstos en los apartados anteriores, por:

- a) La persona o entidad convocante del premio, con carácter general.
- b) La persona premiada, cuando se trate de premios convocados fuera del Territorio Histórico.

La solicitud deberá efectuarse con carácter previo a la concesión del premio o, en el supuesto de la letra b) de este apartado, antes del inicio del período reglamentario de autoliquidación del ejercicio en que se hubiera obtenido.

Para la resolución del expediente podrán solicitarse los informes que se consideren oportunos.

El plazo máximo para notificar la resolución del procedimiento será de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución, la solicitud podrá entenderse desestimada.

La declaración tendrá validez para sucesivas convocatorias siempre que éstas no modifiquen los términos que hubieran sido tomados en consideración a efectos de conceder la exención.

Cuando la declaración de exención haya sido realizada por otra Administración tributaria, la misma tendrá efectos en este Territorio Histórico.

6. Cuando la Administración tributaria haya declarado la exención del premio, las personas o entidades a que se refiere la letra a) del apartado 5 anterior, vendrán obligadas a comunicar a la Administración tributaria, dentro del mes siguiente al de concesión, la fecha de ésta, el premio concedido y los datos identificadores de quienes hayan resultado beneficiados por el mismo.

Para poder seguir aplicando la exención en sucesivas convocatorias de premios ya declarados exentos, bastará que se formule la comunicación a que se refiere el párrafo anterior, acompañando a la misma un ejemplar de las bases de la convocatoria del premio, así como, en su caso, la documentación acreditativa del cumplimiento del requisito previsto en la letra b) del apartado 4 de este artículo.

Artículo 9.- Exención de las ayudas de contenido económico a los deportistas.

A efectos de lo previsto en el artículo 9.15º de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentas, con el límite de 60.100 euros anuales, las ayudas económicas a deportistas ajustadas a los programas de preparación que cumplan las siguientes condiciones:

- a) Que sus beneficiarios tengan reconocida la condición de deportistas de alto nivel, conforme a la legislación que resulte de aplicación.
- b) Que sean financiadas, directa o indirectamente, por las Instituciones competentes en materia de deportes.

Artículo 10.- Exención de las gratificaciones extraordinarias y las prestaciones de carácter público percibidas por la participación en misiones internacionales de paz o humanitarias.

A efectos de lo previsto en el artículo 9.16º de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentas las cantidades de carácter público satisfechas a los miembros de misiones internacionales de paz o humanitarias, por los siguientes motivos:

- a) Las gratificaciones extraordinarias de cualquier naturaleza que se correspondan con el desempeño de la misión internacional de paz o humanitaria.
- b) Las indemnizaciones o prestaciones satisfechas por los daños físicos o psíquicos que se hubieran sufrido durante la misión internacional de paz o humanitaria.

11. artikulua.- Atzerrian egindako lanen zioz hartutako lan etekinen salbuespena.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9.17. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuetsita daude atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, betekizun hauek betez gero:

1. Lanak egoitza Espainian ez duen enpresa edo erakunde batentzat edo atzerrian egoitza duen establezimendu iraunkor batentzat egitea. Hain zuzen ere, lanen hartzaile den erakunde langilearen erakunde enplegatzaillearekin edo hura lanean ari denarekin lotuta badago, lanak egoitza Espainian ez daukan erakundearentzat egintzat joko dira baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, egoitza ez daukan erakundeari egindako zerbitzua, erakunde hartzaileari onuraren bat sortu diola edo sortu diezaiokeela eta, talde barrukotzat hartu ahal bada.

2. Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko izaerako edo izaera bereko zerga bat aplikatzea, eta arau bidez zerga paradisutzat jotzen diren herri eta lurraldeetako ez izatea. Baldintza hau betetzat joko da lanak egiten diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena sinatu badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko eta hitzarmen horretan informazioa trukatzeko klausula badago.

2. Salbuespenaren muga 60.100 euro izango da urtean. Atzerrian egindako lanei dagokien ordainsaria kalkulatzeko, langilea atzerrian egon den egunen kopurua eta atzerrian egiten diren zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak hartu behar dira kontuan.

Atzerrian egindako lanek eguneko sortutako etekinen zenbatekoa kalkulatzeko, lan horiei dagozkien berariazko ordainsariak modu proportzionalean banatuko dira urteko egunen artean.

3. Atzerrian ari diren zergadunek ezin dute bateratu salbuespen hau zerga-ordainetatik baztertutako gaindikinen araubidearekin (araudi honetako 13.A.3.b) artikuluan ezarri da), dena delakoa zenbatekoa. Zergadunak salbuespen honen ordezkari gaidikinen araubidea aplikatzea hautatu ahal du.

12. artikulua.- Lurralde administrazio publikoek ematen dituzten laguntza publikoen salbuespena.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9.28. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuetsita daude lurralde administrazio publikoek ondoren zehaztuko diren arautegien edo haien ordezkarien itzalpean ematen dituzten laguntza publikoak:

- a) Eusko Legebiltzarraren 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Oinarrizko Errentaren inguruko gizarte eskubideen gutunari buruzkoa.
- b) Eusko Legebiltzarraren 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikas-toletan juridikoki normalizatu aurretik irakasle jardun zutenen aitopenari eta haien zuzeneko konpentsazioei buruzkoa.
- c) Eusko Jaurlaritzaren 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, euskal kooperatzaileei Garapenerako Lankidetzeta eta Laguntzarako Funtzaren kargura emango zaizkien laguntzak arautu dituenak.
- d) Eusko Jaurlaritzaren 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak arautu dituenak.
- e) Eusko Jaurlaritzaren 118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, lana eta familia bizitza bateratzeko neurriak arautu dituenak (ondokoak ez dira sartzen: IV. kapituluan ezarritako laguntzak, onuradunak bere jardura ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bitartez zehazten duenean).
- f) Eusko Jaurlaritzaren 199/1999 Dekretua, apirilaren 20koa, gizarte larrialdietarako laguntzak arautu dituenak.

Artículo 11.- Exención para los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos realizados en el extranjero.

1. A efectos de lo previsto en el artículo 9.17º de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentos los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero, cuando se cumplan los siguientes requisitos:

c) Estatuaren Zorraren baloreen eskualdatzeetan, eskualdatzean parte hartzen duen Idazpenetako Zor Publikoaren Merkaturako erakunde kudeatzaileak egin beharko du atxikipena.

d) Talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen ordezkagarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean, ondoko pertsona edo erakunde hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1. Inbertsio funtsetako partaidetzak itzuliz gero, sozietate kudeatzaileak.

2. Kapital aldakorreko inbertsio sozietateren batek, ez burtsan ez baloreen beste merkatu edo negozio sistema antolaturen batean kotizatzen ez duten akzioak dituenak, akzioak berriro erosten baditu, berdin dio akzio horiek zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bitartez erositakoak izan, sozietateak berak, salbu eta sozietate kudeatzailearen batek esku hartzen duenean; horrelakoetan sozietate kudeatzaileak berak egin beharko du.

3. Egoitza atzerrian duten talde inbertsioko erakundeak direnean, erakunde merkaturatzaileak edo haien akzio nahiz partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak eta, sorospidez, itzulketa egiten dutenean, balizko harpidedunen artean baloreak jarri edo banatzeaz arduratutako erakundeak edo erakundeak.

4. Zerbitzuen eskaintza libreko araubidean aritzen diren erakunde kudeatzaileen kasuan, zerga arloko hainbat xedapen aldatzen dituen maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauak seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik izendatutako ordezkariak.

5. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera atxikipenik egin behar ez den kasuetan, eskualdaketa egin edota ordainketa jasotzen duen bazkide edo partaideak konturako ordainketa

- Cuando satisfagan a su personal cantidades desembolsadas por terceros en concepto de propina, retribución por el servicio u otros similares.

- Tratándose de Cooperativas Agrarias, cuando distribuyan o comercialicen los productos procedentes de las explotaciones de sus socios.

2. En particular:

a) Están obligados a retener las entidades residentes o los establecimientos permanentes en los que presten servicios los contribuyentes cuando se satisfagan a éstos rendimientos del trabajo por otra entidad, residente o no residente, vinculada con aquéllas en los términos previstos en el artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, o por el titular en el extranjero del establecimiento permanente radicado en el País Vasco.

b) En las operaciones sobre activos financieros estarán obligados a retener:

1º. En los rendimientos obtenidos en la amortización o reembolso de los activos financieros, la persona o entidad emisora. No obstante, en caso de que se encomiende a una entidad financiera la materialización de esas operaciones, el obligado a retener será la entidad financiera encargada de la operación.

Cuando se trate de instrumentos de giro convertidos después de su emisión en activos financieros, a su vencimiento estará obligado a retener el fedatario público o institución financiera que intervenga en su presentación al cobro.

2º. En los rendimientos obtenidos en la transmisión de activos financieros incluidos los instrumentos de giro a los que se refiere el número anterior, cuando se canalice a través de una o varias instituciones financieras, el banco, caja o entidad financiera que actúe por cuenta del transmitente.

A los efectos de lo dispuesto en este número, se entenderá que actúa por cuenta del transmitente el banco, caja o entidad financiera que reciba de aquél la orden de venta de los activos financieros.

3º. En los casos no recogidos en los apartados anteriores, el fedatario público que obligatoriamente debe intervenir en la operación.

c) En las transmisiones de valores de la Deuda del Estado deberá practicar la retención la entidad gestora del Mercado de Deuda Pública en Anotaciones que intervenga en la transmisión.

d) En las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, deberán practicar retención o ingreso a cuenta las siguientes personas o entidades:

1º. En el caso de reembolso de las participaciones de fondos de inversión, las sociedades gestoras.

2º. En el caso de recompra de acciones por una sociedad de inversión de capital variable cuyas acciones no coticen en bolsa ni en otro mercado o sistema organizado de negociación de valores, adquiridas por el contribuyente directamente o a través de comercializador a la sociedad, la propia sociedad, salvo que intervenga una sociedad gestora; en este caso, será ésta.

3º. En el caso de instituciones de inversión colectiva domiciliadas en el extranjero, las entidades comercializadoras o los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones o participaciones de aquéllas y, subsidiariamente, la entidad o entidades encargadas de la colocación o distribución de los valores entre los potenciales suscriptores, cuando efectúen el reembolso.

4º. En el caso de gestoras que operen en régimen de libre prestación de servicios, el representante designado de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Sexta de la Norma Foral 7/2004, de 10 de mayo, de modificación de diversas disposiciones tributarias.

5º. En los supuestos en los que no proceda la práctica de retención conforme a los números anteriores, estará obligado a efectuar un pago a cuenta el socio o partícipe que efectúe

egin beharko du. Konturako ordainketa hori araudi honetako 116., 117. eta 118. artikuluetan dauden arauekin bat etorriko egingo da.

- e) Zerbitzuen eskaintza libreko araubidean aritzen diren aseguru erakundeek Espainian egiten dituzten eragiketetan, zerga arloko hainbat xedapen aldatzen dituen maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauak bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorri izendatutako ordezkariak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.
- f) Egoitza Europako Batasuneko beste herrialde batean duten pentsio funtsek Espainiako legeriari lotutako enpleguko pentsio planak garatzen dituztenean, enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan ezarritako moduan, haiek izendatutako ordezkariak egin beharko ditu atxikipena eta konturako sarrera, Zergari buruzko Foru Arauko 108.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Atxikitzea behartuta dauden subjektuek sarrera Arabako Foru Aldundian egiteko betebeharra hartuko dute bere gain, eta lehen betebeharra ez betetzeak ez ditu betebeharrak onartuko.

Etekin Arabako Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta hari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

103. artikulua.- Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa izango da, atxikipenaren oinarriari atxikipen tasa aplikatzearen emaitzako kopurua; izan ere, tasa hori ondorengo II. kapituluan ezarritakoaren arabera izango da. Atxikipenaren oinarria ordaindutako guztizko zenbatekoa izango da. Hala ere, kontuan hartuko da lanaren etekinei buruz araudi honetako 106. artikuluan xedatutakoa, higigarrien kapitalaren etekinei buruz 113. artikuluan xedatutakoa eta talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetan sortutako ondare irabaziei buruz 117. artikuluan xedatutakoa.

2. Gauzazko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa zehazteko, ordainketa horien balioa kalkulatu da, araudi honetan adierazitako moduan, eta hurrengo III. kapituluan ezarritakoaren arabera dagokion ehunekoa aplikatu zaio.

104. artikulua.- Atxikipena edo konturako sarrera egin beharra sortzea.

1. Atxikipena edo konturako sarrera egin beharra, oro har, errentak ordaintzen diren unean sortuko da.

2. Higigarrien kapitalaren etekinei eta talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetan izandako ondare irabaziei dagokien, araudi honetako 114. eta 118. artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan, hurrenez hurren.

105. artikulua.- Atxikipen edo konturako sarreraren denbora egozketa.

Zergadunek, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak zein zergaldira egotzen dizkioten, hari egotziko dizkiote atxikipenak edo konturako sarrerak, noiz egin diren kontuan hartu gabe.

II. KAPITULUA ATXIKIPENEN KALKULUA

Lehen atala Lanaren etekinak

106. artikulua.- Lanaren etekinen gaineko atxikipenaren zenbatekoa.

1. Lanaren etekinen gainean egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, lanaren etekinen zenbateko osoari jarraian azalduko diren ehunekoetatik egokia aplikatu behar zaio:

- a) Oro har, etekinen zenbatekoa eta zergadunaren inguruabar pertsonalak kontuan harturik hurrengo artikuluko taularen eta jarraibideen arabera aplikatu behar den ehunekoa.

la transmisión u obtenga el reembolso. El mencionado pago a cuenta se efectuará de acuerdo con las normas contenidas en los artículos 116, 117 y 118 de este Reglamento.

- e) En las operaciones realizadas en España por entidades aseguradoras que operen en régimen de libre prestación de servicios, estará obligado a practicar retención o ingreso a cuenta el representante designado de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Quinta de la Norma Foral 7/2004, de 10 de mayo, de modificación de diversas disposiciones tributarias.
- f) En las operaciones realizadas por fondos de pensiones domiciliados en otro Estado de la Unión Europea que desarrollen planes de pensiones de empleo sujetos a la legislación española, conforme a lo previsto en la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, estará obligado a practicar retención e ingreso a cuenta el representante que hayan designado conforme a lo previsto en el artículo 108.1 de la Norma Foral del Impuesto.

3. Los sujetos obligados a retener asumirán la obligación de efectuar el ingreso en la Diputación Foral de Álava, sin que el incumplimiento de aquella obligación pueda excusarles de ésta.

La retención e ingreso correspondiente, cuando la entidad pagadora del rendimiento sea la Diputación Foral de Álava, se efectuará de forma directa.

Artículo 103.- Importe de la retención o ingreso a cuenta.

1. El importe de la retención será el resultado de aplicar a la base de retención el tipo de retención que corresponda de acuerdo con lo previsto en el Capítulo II siguiente. La base de retención será la cuantía total que se satisfaga o abone, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 106 para los rendimientos del trabajo, en el artículo 113 para los rendimientos de capital mobiliario y en el artículo 117 para las ganancias patrimoniales derivadas de las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva, de este Reglamento.

2. El importe del ingreso a cuenta que corresponda realizar por las retribuciones en especie será el resultado de aplicar al valor de las mismas, determinado según las normas contenidas en este Reglamento, el porcentaje que corresponda de acuerdo con lo previsto en el Capítulo III siguiente.

Artículo 104.- Nacimiento de la obligación de retener o ingresar a cuenta.

1. Con carácter general, la obligación de retener o ingresar a cuenta nacerá en el momento en que se satisfagan o abonen las rentas correspondientes.

2. En los supuestos de rendimientos del capital mobiliario y ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión o reembolso de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva, se atenderá a lo previsto, respectivamente, en los artículos 114 y 118 de este Reglamento.

Artículo 105.- Imputación temporal de las retenciones o ingresos a cuenta.

Las retenciones o ingresos a cuenta se imputarán por los contribuyentes al período en que se imputen las rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta, con independencia del momento en que se hayan practicado.

CAPÍTULO II CÁLCULO DE LAS RETENCIONES

Sección Primera Rendimientos del trabajo

Artículo 106.- Importe de las retenciones sobre rendimientos del trabajo.

1. La retención a practicar sobre los rendimientos del trabajo será el resultado de aplicar a la cuantía íntegra de las rentas del trabajo que se satisfagan o abonen el porcentaje que corresponda de los siguientes:

- a) Con carácter general el que, en función de la cuantía de los rendimientos y de las circunstancias personales del contribuyente, resulte de acuerdo con la tabla e instrucciones contenidas en el artículo siguiente.

b) Administratzaileek, administrazio kontseiluetako eta horien ordezkari batzordeetako kideek eta beste ordezkari organo batzuetako kideek jasotzen dituzten ordainsarien kasuan, atxikipen ehunekoak %35 izango da.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, lanaren errenta jakin batzuei Zergari buruzko Foru Arauko 19., 20. eta 21. artikuluetan aipatutako ehunekoak aplikatu behar bazaizkie, errenta horien zenbateko osoa kalkulatzeko aipatu ehuneko horiek erabiliko dira.

3. Jasotzaile berari diruz eta gauza bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da atxikipena.

4. Atxikipenaren ehunekoak diruzko eta gauzako ordainsariak, hau da, aurretik ikusi ahal izan eta finko zein aldakorrek direnak, kontuan hartuz kalkulatu da.

Hala eta guztiz ere, atxikipenaren ehunekoak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako ekarpenak, ez eta enpresek pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, baldin eta horiek zerga oinarri orokorra txikitzen badute Zergari buruzko Foru Arauko 62. artikuluko 73.1 idatz zatian ezarritakoa aplikatuz gehienaz ateratzen den mugaraino.

Halaber, kooperatibek, arauetan xedatutakoa betetzeko, bazkide langileen edo lan bazkideen gizarte eta laguntza estaldurarako Gizarte Segurantzari langile autonomoen araubide berezian ordaintzen dizkieten kotizazioak ez dira sartu behar zerga oinarrian.

Aurreko paragrafoetan aipatu den ehunekoak ordaindutako kontraprestazio eta onura guztiei aplikatuz ateratzen den zenbatekoak ordaindutako diru etekinetatik kenduko da.

107. artikulua.- Atxikipen ehunekoaren taula eta hura aplikatzeko erregelak.

1. Atxikipen ehunekoaren taula orokorra:

Urteko etekinaren zenbatekoa Gutxienez (eurotan)	Gehienez (eurotan)	Ondorengo kopurua						
		0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,01	10.390,00	0	0	0	0	0	0	0
10.390,01	10.810,00	1	0	0	0	0	0	0
10.810,01	11.260,00	2	0	0	0	0	0	0
11.260,01	11.750,00	3	1	0	0	0	0	0
11.750,01	12.280,00	4	2	0	0	0	0	0
12.280,01	12.870,00	5	3	1	0	0	0	0
12.870,01	13.510,00	6	4	2	0	0	0	0
13.510,01	14.220,00	7	5	3	0	0	0	0
14.220,01	15.010,00	8	6	4	1	0	0	0
15.010,01	15.900,00	9	7	5	2	0	0	0
15.900,01	17.260,00	10	9	7	4	0	0	0
17.260,01	18.700,00	11	10	8	5	2	0	0
18.700,01	20.620,00	12	11	9	7	4	0	0
20.620,01	22.590,00	13	12	10	8	5	2	0
22.590,01	24.800,00	14	13	12	10	7	4	0
24.800,01	27.140,00	15	14	13	11	9	5	0
27.140,01	29.940,00	16	15	14	12	10	7	0
29.940,01	33.430,00	17	16	15	14	12	9	1
33.430,01	36.110,00	18	17	16	15	13	11	4
36.110,01	38.530,00	19	18	17	16	15	12	6
38.530,01	41.260,00	20	19	19	17	16	14	8
41.260,01	44.420,00	21	20	20	19	17	15	10
44.420,01	48.090,00	22	21	21	20	18	17	11
48.090,01	51.000,00	23	22	22	21	20	18	13
51.000,01	54.420,00	24	24	23	22	21	19	15
54.420,01	58.280,00	25	25	24	23	22	21	16
58.280,01	62.750,00	26	26	25	24	23	22	18
62.750,01	67.440,00	27	27	26	25	24	23	19
67.440,01	71.630,00	28	28	27	26	26	24	21
71.630,01	76.400,00	29	29	28	28	27	26	22
76.400,01	81.820,00	30	30	29	29	28	27	24
81.820,01	88.080,00	31	31	30	30	29	28	25
88.080,01	95.380,00	32	32	31	31	30	29	27
95.380,01	103.990,00	33	33	32	32	31	31	28
103.990,01	114.280,00	34	34	33	33	32	32	30
114.280,01	126.830,00	35	35	35	34	34	33	31
126.830,01	142.330,00	36	36	36	35	35	34	32
142.330,01	161.310,00	37	37	37	36	36	35	34
161.310,01	186.130,00	38	38	38	37	37	37	35
186.130,01	219.970,00	39	39	39	38	38	38	37
219.970,01	hortik gora	40	40	40	39	39	39	37

b) Cuando se trate de retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces y demás miembros de otros órganos representativos, el porcentaje de retención será del 35 por 100.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, si a determinadas rentas del trabajo les resultasen de aplicación los porcentajes a los que se refieren los artículos 19, 20 y 21 de la Norma Foral del Impuesto, la cuantía íntegra de dichas rentas se obtendrá por la aplicación de los citados porcentajes.

3. Cuando se satisfagan o abonen rentas del trabajo dinerarias y en especie a un mismo receptor, se practicará retención sobre la totalidad de las contraprestaciones o utilidades satisfechas.

4. El porcentaje de retención se calculará teniendo en cuenta las retribuciones dinerarias y en especie tanto fijas como variables que sean previsibles.

No obstante, no formarán parte de la base a tener en cuenta para calcular el porcentaje de retención las contribuciones satisfechas por los socios protectores de las Entidades de Previsión Social Voluntaria, ni las contribuciones empresariales a los planes de pensiones, a los planes de previsión social empresarial y a las mutualidades de previsión social que reduzcan la base imponible general hasta el límite máximo resultante de aplicar lo dispuesto en el artículo 73.1 de la Norma Foral del Impuesto a las retribuciones satisfechas.

Asimismo, no formarán parte de la base de retención las cantidades que en concepto de cotizaciones a la Seguridad Social en el régimen especial de trabajadores autónomos, en cumplimiento de disposiciones normativas, sean satisfechas por las cooperativas para la cobertura social y asistencial de los socios trabajadores o de trabajo.

El importe resultante de aplicar el porcentaje referido en los párrafos anteriores a la totalidad de las contraprestaciones y utilidades satisfechas se reducirá de los rendimientos dinerarios abonados.

Artículo 107.- Tabla de porcentajes de retención y reglas para su aplicación.

1. Tabla general de porcentajes de retención:

Importe rendimiento anual Desde Euros	Hasta Euros	Número de descendientes					Más
		0	1	2	3	4	
0,01	10.390,00	0	0	0	0	0	0
10.390,01	10.810,00	1	0	0	0	0	0
10.810,01	11.260,00	2	0	0	0	0	0
11.260,01	11.750,00	3	1	0	0	0	0
11.750,01	12.280,00	4	2	0	0	0	0
12.280,01	12.870,00	5	3	1	0	0	0
12.870,01	13.510,00	6	4	2	0	0	0
13.510,01	14.220,00	7	5	3	0	0	0
14.220,01	15.010,00	8	6	4	1	0	0
15.010,01	15.900,00	9	7	5	2	0	0
15.900,01	17.260,00	10	9	7	4	0	0
17.260,01	18.700,00	11	10	8	5	2	0
18.700,01	20.620,00	12	11	9	7	4	0
20.620,01	22.590,00	13	12	10	8	5	2
22.590,01	24.800,00	14	13	12	10	7	4
24.800,01	27.140,00	15	14	13	11	9	5
27.140,01	29.940,00	16	15	14	12	10	7
29.940,01	33.430,00	17	16	15	14	12	9
33.430,01	36.110,00	18	17	16	15	13	11
36.110,01	38.530,00	19	18	17	16	15	12
38.530,01	41.260,00	20	19	19	17	16	14
41.260,01	44.420,00	21	20	20	19	17	15
44.420,01	48.090,00	22	21	21	20	18	17
48.090,01	51.000,00	23	22	22	21	20	18
51.000,01	54.420,00	24	24	23	22	21	19
54.420,01	58.280,00	25	25	24	23	22	21
58.280,01	62.750,00	26	26	25	24	23	22
62.750,01	67.440,00	27	27	26	25	24	23
67.440,01	71.630,00	28	28	27	26	26	24
71.630,01	76.400,00	29	29	28	28	27	26
76.400,01	81.820,00	30	30	29	29	28	27
81.820,01	88.080,00	31	31	30	30	29	28
88.080,01	95.380,00	32	32	31	31	30	29
95.380,01	103.990,00	33	33	32	32	31	31
103.990,01	114.280,00	34	34	33	33	32	32
114.280,01	126.830,00	35	35	35	34	34	33
126.830,01	142.330,00	36	36	36	35	35	34
142.330,01	161.310,00	37	37	37	36	36	35
161.310,01	186.130,00	38	38	38	37	37	37
186.130,01	219.970,00	39	39	39	38	38	38
219.970,01	en adelante	40	40	40	39	39	39

2. Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1. Taula aplikatzeko kontuan hartu behar diren ondorengoak Zergari buruzko Foru Arauko 81. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenak baino ez dira. Horri dago-kionez, familiaren egoera izango da egutegiko urteko lehenengo egunean dagoena, edo harremanen hasierako egunekoa, baldin eta harremanok hasi badira egutegiko urtearen lehenengo egunaren ondoren.

Ez dira kontuan hartuko atxikipena egin behar den zergaldian 30 urte baino gehiago beteko dituzten ondorengoak, salbu eta ondorengook Zergari buruzko Foru Arauko 84. artikuluan aipatutako kenketa egiteko eskubidea sortzen dutenean.

2. Taula aplikatzen denean kontuan hartu behar den ordainsari bolumena hartukizun osoaren arabera zehaztuko da, zergadunak, kontratuko arau edo hizpaketa aplikagarriak eta aurreikus daitezkeen gainerako inguruabarrak direla bide, egutegiko urtean hartuko bide dituen diruzko eta gauzazko ordainsariak kontuan harturik.

Urteko hartukizun osoan, hartu bide diren ordainsari finkoek gain aldakorrek ere sartuko dira.

Ordainsari horietariko baten bati Zergari buruzko Foru Arauko 19., 20. eta 21. artikuluetako xedapenak aplikatu behar bazaizkio, ordainsariaren gaineko atxikipenaren ehunekoak kalkulatzeko, artikulua horietan adierazitako ehunekoetatik egokia dena aplikatuz ateratzen den kopurua konputatuko da etekintzat.

3. Horrela zehaztutako atxikipen ehunekoak ordaindutako ordainsari guztiei aplikatuko zaie. Ordainsari horietariko baten bati Zergari buruzko Foru Arauko 19., 20. eta 21. artikuluetako xedapenak aplikatu behar bazaizkio, kalkulaturako atxikipen ehunekoak aplikatuko zaio artikulua horietan adierazitako ehunekoetatik egokia dena aplikatuz ateratzen den etekinari.

Urtean zehar diru edo gauza bidezko ordainketen kopurua aldatzen denean, beste ehuneko bat kalkulatu beharko da, aldaketak kontuan hartuta. Dena delako aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste ehuneko hori.

Urtebete baino gutxiago dirauen kontratu edo harremanaren hasieran ezarritako iraunaldia amaitutakoan langileak enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen badu, edo egutegiko urtea amaitu aurretik berriro hasten bazaio zerbitzuak egiten, beste atxikipen ehuneko bat kalkulatu beharko da eta horretarako kontuan hartuko dira bai lehenago hartu dituen ordainsariak eta bai aurrerantzean hartuko bide dituenak, betiere egutegiko urte batean.

4gn. Aurreko idatz zatietan xedatutakoaren arabera ateratzen den atxikipen ehunekoak gutxienez %15 izan beharko da etekinak mendetasunezko lan harreman berezietatik sortzen badira, eta gutxienez %2, kontratu edo harremanak urtebete baino gutxiago irauten badu.

Alabaina, ez zaie aplikatuko aurreko paragrafoan aipatzen den %15eko gutxieneko ehuneko hori espeteratuek espetxean lortzen dituzten etekinei, ez eta ezinduek lan harreman berezietatik ateratzen dituzten etekinei ere.

3. Taula aplikatzeko arau berariazkoak.

1. Etekinak pentsioak edo hartzeko pasiboak badira, ondorengo bat duten zergadunei taulan dagokien zutabearen ageri diren atxikipen ehunekoak aplikatu behar zaizkie.

Aplikatu beharreko atxikipen ehunekoak zehaztearren bakar-bakarrik, bidezkoa izango da ekitaldian zehar pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular izatera igaro direnek pentsioen edo hartzeko pasiboen zioz hartutako kopuruak urteari egokitzea.

Hala ere, zergadunak atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu ahal izango du, bere inguruabar pertsonalen arabera, eta hala egiten badu ez da bidezkoa izango hartutako kopuruak urteari egokitzea.

2. Reglas generales para la aplicación de la tabla.

1ª. El número de descendientes a tener en cuenta para la aplicación de la tabla será el de aquéllos por los que se tenga derecho a la deducción prevista en el artículo 81 de la Norma Foral del Impuesto. A estos efectos, la situación familiar será la existente el día primero del año natural, o el día de inicio de la relación cuando ésta hubiera comenzado con posterioridad a aquella fecha.

No se computarán los descendientes que vayan a cumplir más de 30 años en el período impositivo en el que sea de aplicación la retención, salvo que dichos descendientes originen el derecho a practicar la deducción contemplada en el artículo 84 de la Norma Foral del Impuesto.

2ª. El volumen de retribuciones a tener en cuenta para la aplicación de la tabla se determinará en función de la percepción íntegra, teniendo en cuenta las retribuciones dinerarias y en especie que, de acuerdo con las normas o estipulaciones contractuales aplicables y demás circunstancias previsibles, vaya normalmente a percibir el contribuyente en el año natural.

La percepción íntegra anual también incluirá tanto las retribuciones fijas como las variables previsibles.

Si entre las retribuciones anteriores se incluyese alguna a la que resulte de aplicación lo dispuesto en los artículos 19, 20 y 21 de la Norma Foral del Impuesto, para el cálculo del porcentaje de retención se computará como rendimiento el resultante de aplicar el porcentaje que corresponda de los señalados en los citados artículos.

3ª. El porcentaje de retención así determinado se aplicará a la totalidad de las retribuciones que se abonen o satisfagan. Si entre las retribuciones anteriores se incluyese alguna a la que resulte de aplicación lo dispuesto en los artículos 19, 20 y 21 de la Norma Foral del Impuesto, el porcentaje de retención calculado se aplicará sobre el rendimiento resultante de aplicar el porcentaje que corresponda de los señalados en los citados artículos.

Cuando durante el año se produzcan variaciones en la cuantía de las retribuciones dinerarias o en especie, se calculará un nuevo porcentaje teniendo en cuenta las alteraciones producidas. Este nuevo porcentaje se aplicará exclusivamente a partir de la fecha en que se produzcan las referidas variaciones.

Si al concluir el período inicialmente previsto en un contrato o relación de duración inferior al año el trabajador continuase prestando sus servicios al mismo empleador, o volviese a hacerlo dentro del año natural, se calculará un nuevo porcentaje de retención teniendo en cuenta tanto las retribuciones anteriormente satisfechas como las que normalmente vaya a percibir, siempre dentro del mismo año natural.

4ª. El porcentaje de retención resultante de lo dispuesto en los apartados anteriores no podrá ser inferior al 15 por 100 cuando los rendimientos se deriven de relaciones laborales especiales de carácter dependiente, ni al 2 por 100 en el caso de contratos o relaciones de duración inferior al año.

No obstante, no será de aplicación el mínimo del 15 por 100 de retención a que se refiere el párrafo anterior a los rendimientos obtenidos por los penados en las instituciones penitenciarias ni a los rendimientos derivados de relaciones laborales de carácter especial que afecten a personas con discapacidad.

3. Reglas específicas para la aplicación de la tabla.

1ª. Tratándose de pensiones y haberes pasivos, serán de aplicación los porcentajes de retención de la columna de la tabla correspondientes a contribuyentes con un descendiente.

A los exclusivos efectos de determinar el porcentaje de retención aplicable, procederá la elevación al año de las cantidades que como tales pensionistas o titulares de haberes pasivos perciban quienes adquieran tal condición durante el ejercicio.

No obstante, el contribuyente podrá optar por la aplicación de la tabla general de retenciones atendiendo a la realidad de sus circunstancias personales, sin que en este caso proceda la elevación al año.

2. Enplegatzailearekin egunez eguneko harremana izan eta ordainsariak eguneko soldata gisa jasotzen dituzten esku-langileen kasuan, taula aplikatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoa kalkulatzeko, eguneko soldata bider 100 egingo da.

3. Lanaren etekinen jasotzaileak, epailearen ebazpena dela bide, konpentsazio pentsioa eman behar badio bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, horren zenbatekoa atxikipen ehunekoak kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoari kendu ahal izango zaio.

Horretarako, zergadunak ordaintzaileari, hurrengo 108. artikuluan ezarritako moduan, inguruabar horren berri eman beharko dio, pentsioa emateko agintzen duen ebazpen judizialaren hitzez hitzeko lekukotasun agiria erantsita.

Erregela honetan ezarritako murrizketa aplika dadin, beharrezkoa izango da langileak kontratu mugagabea izatea. Gainera, epaileak pentsioa emateko agindu eta hurrengo zergalditik aurrera baino ezingo da eskatu murrizketa hori.

Erregela honetan aipatutako kasuetan, kalkulatzeko den atxikipen ehunekoak %2 baino txikiagoa bada, %2ko ehunekoak aplikatuko da.

4. Langile aktibo ezinduek.

Langile aktibo ezinduei artikuluko 1. idatz zatian aipatutako atxikipen ehunekoak taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorraren arabera atxikipen ehuneko horri ondoko eskalan ezarritako puntuak kenduko zaizkie, langilearen egoeraren arabera:

- a) %33ko edo hortik gorako eta %65etik beherako ezintasuna duen langile ezindu aktiboa bada.
- b) %33ko edo hortik gorako eta %65etik beherako ezintasuna duen langile ezindu aktiboa bada eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.
- c) %65eko edo hortik gorako ezintasun maila duen langile ezindu aktiboa bada.

Urteko etekinaren zenbatekoa		Ezintasun maila		
Gutxienez (eurotan)	Gehienez (eurotan)	4.a) idatz zatia	4. b) idatz zatia	4.c) idatz zatia
0,01	17.260,00	9		10
17.260,01	20.620,00	7		12
20.620,01	24.800,00	6		11
24.800,01	29.970,00	5		10
29.970,01	41.260,00	4		9
41.260,01	62.750,00	3		7
62.750,01	114.270,00	2		5
114.270,01	hortik gora	1		3

108. artikulua.- Lanaren errenten hartzaileak datuak jakinaraztea ordaintzaileari.

1. Zergadunek ordaintzaileari jakinarazi behar diote zenbat ondorengo dituzten Zergari buruzko Foru Arauko 81. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea dutenak, eta jakinarazi egin behar diote epailearen aginduz konpentsazio pentsioa ordaindu behar diotela ezkontideari edo izatezko bikotekideari, hala denean, horrela araudi honetako 107. artikuluko 1. idatz zatiko taula aplikatu dakien.

Era berean, langile aktibo ezinduek Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako egoera jakinarazi eta frogatu behar dute.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako datuak ordaintzaileari jakinarazi ezean, ordaintzaileak ez ditu kontuan hartuko atxikipen ehunekoak aplikatzerakoan. Bestalde, datu horiek ez emateagatik edo gezurrezko datuak emateagatik zehapena ezarri ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

2ª. Cuando se trate de trabajadores manuales que perciban sus retribuciones por peonadas o jornales diarios, consecuencia de una relación esporádica y diaria con el empleador, el volumen de las retribuciones a tener en cuenta para la aplicación de la tabla correspondiente será el resultado de multiplicar por 100 el importe de la peonada o jornal diario percibido.

3ª. Cuando el percceptor de rendimientos del trabajo estuviese obligado a satisfacer, por resolución judicial, una pensión compensatoria a su cónyuge o pareja de hecho, el importe de ésta podrá disminuir el volumen de retribuciones a tener en cuenta para el cálculo del porcentaje de retención.

A tal fin, el contribuyente deberá poner en conocimiento de su pagador, en la forma prevista en el artículo 108 siguiente, dicha circunstancia, acompañando testimonio literal de la resolución judicial determinante de la pensión.

La reducción prevista en esta regla sólo resultará aplicable cuando el trabajador prestase sus servicios bajo la vigencia de un contrato de duración indefinida y sólo podrá ser invocada a partir del período impositivo siguiente a aquél en que se hubiese fijado judicialmente la pensión.

En los supuestos contemplados en esta regla, si el porcentaje de retención resultante fuese inferior al 2 por 100, se aplicará este último.

4. Trabajadores activos discapacitados.

A los trabajadores activos discapacitados les será de aplicación la tabla general de porcentajes de retención a que se refiere el apartado 1 de este artículo. Este porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala, según que el referido trabajador se encuentre en alguna de las siguientes situaciones:

- a) Trabajadores activos discapacitados con un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100.
- b) Trabajadores activos discapacitados con un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tal los que se encuentren incluidos en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B ó C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1.971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G ó H del citado baremo.
- c) Trabajadores activos discapacitados con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100.

Importe rendimiento anual		Grado de minusvalía		
Desde Euros	Hasta Euros	Apartado 4.a)	Apartado 4. b)	Apartado 4. c)
0,01	17.260,00	9		10
17.260,01	20.620,00	7		12
20.620,01	24.800,00	6		11
24.800,01	29.970,00	5		10
29.970,01	41.260,00	4		9
41.260,01	62.750,00	3		7
62.750,01	114.270,00	2		5
114.270,01	en adelante	1		3

Artículo 108.- Comunicación de datos del percceptor de rentas del trabajo a su pagador.

1. Los contribuyentes deberán comunicar al pagador el número de descendientes con derecho a la deducción prevista en el artículo 81 de la Norma Foral del Impuesto, así como, en su caso, la existencia de la obligación de satisfacer, por resolución judicial, una pensión compensatoria a su cónyuge o pareja de hecho, al objeto de que le sea aplicable la tabla del apartado 1 del artículo 107 de este Reglamento.

Igualmente, los trabajadores activos discapacitados deberán comunicar y acreditar la situación contemplada en el apartado 3 del artículo 24 de la Norma Foral del Impuesto.

2. La falta de comunicación al pagador de los datos mencionados en el apartado anterior determinará que éste aplique el porcentaje de retención correspondiente sin tener en cuenta los mismos, sin perjuicio de que dicha omisión o una comunicación inexacta de los referidos datos conlleve, en su caso, la imposición de las sanciones procedentes.

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatutako datuak egutegiko urtearen lehen egunaren aurretik edo harremana hasten den unean jakinarazi behar dira.

Ez da beharrezkoa izango datuak ordaintzaileari urtero jakinaraztea, zergadunak azkenekoz jakinarazi zituenetik aldatu ez badira.

4. Zergadunek ordaintzaileei edonoiz eskatu ahal izango diete araudi honetan ezarritakoaren arabera ateratzen diren atxikipen ehunekoak baino handiagoak aplikatu ditzatela, honako arau hauei jarraituz:

a) Idatzizko eskaera aurkeztuko zaie ordaintzaileei, eta hauek nahitaez egin beharko dute eskatutakoa, nominak egin aurretik, behar beste denbora lehenago.

b) Eskaera aurkezten denetik urtea amaitu arte, eskatutako atxikipen ehuneko berria ezin izango da aldatu, araudi honetako 107. artikuluko 2. idatz zatiko 3. erregelari azaltzen diren kasuetan izan ezik, eta ehuneko hori hurrengo ekitaldietan aplikatuko zaio zergadunari, ez baldin badio idatziz uko egiten edo atxikipen ehuneko handiagoa eskatzen eta inguruabarren aldaketaren batek atxikipen ehuneko handitzen ez bada, atxikipen ehuneko taulen arabera.

5. Pentsiodunek, atxikipen ehuneko taula orokorra aukeratzen badute, hala adierazi beharko diote idatziz ordaintzaileari edo erakunde kudeatzaileari abenduan, urtero, edo pentsioduna nahiz hartzeko pasiboaren titularra izatera igaro aurreko urtean.

6. Ordaintzaileak gorde egin behar ditu zergadunak aurkeztutako egiaztagiri edo jakinarazpenak eta Zerga Administrazioaren esku jarri behar ditu hala eskatuz gero.

109. artikulua.- Egoitza aldatzen denean lanaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak zehazteko prozedura berezia.

1. Besteren konturako langile batek, zerga honen kargapeko ez denak, egoitza Espainiako lurraldera aldatu eta ondorioz Zergaren kargapean geratzekoa bada, horren berri eman ahal izango dio Zerga Administrazioari Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartzen duen ereduaren bidez; hain zuzen ere, foru diputatu horrek adieraziko du eredia nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta zein agiri aurkeztu behar diren ere.

Berriematean langilearen eta lanaren etekinen ordaintzailearen identifikazioak agertu behar dira, langilea noiz sartu den Espainiako lurraldean eta ordaintzaile horrentzat noiz hasi den lanean adierazi behar da, eta zehaztu behar da lan harreman horretan ba ote dagoen daturik pentsarazten duenik harreman horren ondorioz langilea egoitza aldaketa gertatzen den egutegiko urtean, edo hurrengoan bestela, Espainiako lurraldean lanean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago, Espainiako lurraldean hasten denetik zenbatuta, egon beharko dela.

2. Zerga Administrazioak, berriematea eta berarekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zerga honen ziozko atxikipenak zein egunetan hasiko zaizkio egiten adierazten duen frogagiria bidaliko dio langileari, bidezkoa bada, eta bidali ere berriematea aurkeztu eta hamar egun balioudun igaro baino lehen.

3. Langileak lanaren etekinen ordaintzaileari Zerga Administrazioak emandako agiriaren ale bat emango dio, atxikipenak aplikatzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan bertan adierazitako egunetik aurrera.

4. Agiri hori jasotakoan, eta bertan adierazitako egunetik aurrera, atxikitzaileak zerga honi buruzko arautegian ezarritakoaren arabera aplikatuko ditu atxikipenak.

5. Interesatua egoitza aldatzen duen urtean zerga honen zergadun bihurtzen ez bada, zerga honen kontura aplikatutako atxikipenak kendu ahal izango ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan.

3. La comunicación de datos a la que se refiere el apartado 1 anterior deberá efectuarse con anterioridad al primer día del año natural o en el momento del inicio de la relación.

No será preciso reiterar en cada ejercicio la comunicación de datos al pagador, en tanto no varíen los datos de la última comunicación realizada por el contribuyente.

4. Los contribuyentes podrán solicitar, en cualquier momento, de sus correspondientes pagadores la aplicación de porcentajes de retención superiores a los que resulten de lo previsto en este Reglamento, con arreglo a las siguientes normas:

a) La solicitud se realizará por escrito presentado a los pagadores, quienes vendrán obligados a atender las solicitudes que se les formulen, con antelación suficiente a la confección de las correspondientes nóminas.

b) El nuevo porcentaje de retención solicitado no podrá ser modificado, salvo en los supuestos a que se refiere la regla 3ª del apartado 2 del artículo 107 de este Reglamento, en el período de tiempo que medie entre la solicitud y el final del año y será de aplicación al contribuyente durante los ejercicios sucesivos, en tanto no renuncie, por escrito, al citado porcentaje o no solicite un porcentaje de retención superior, y siempre que no se produzca alguna variación de circunstancias que determine un porcentaje superior, según las tablas de porcentajes de retención.

5. La opción por la tabla general de porcentajes de retención que pueden ejercitar los pensionistas deberá realizarse por escrito ante el pagador o entidad gestora correspondiente, en el mes de diciembre de cada año o en el inmediato anterior a aquél en que se adquiera la condición de pensionista o titular de haber pasivo.

6. El pagador deberá conservar los justificantes o comunicaciones aportados por el contribuyente y ponerlos a disposición de la Administración tributaria cuando ésta se los solicite.

Artículo 109.- Procedimiento especial para determinar las retenciones e ingresos a cuenta sobre los rendimientos del trabajo en el supuesto de cambio de residencia.

1. Los trabajadores por cuenta ajena que no sean contribuyentes por este Impuesto, pero que vayan a adquirir dicha condición como consecuencia de su desplazamiento a territorio español, podrán comunicar a la Administración tributaria dicha circunstancia, mediante el modelo de comunicación que apruebe el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, quien establecerá la forma, lugar y plazo para su presentación, así como la documentación que deba adjuntarse al mismo.

En la citada comunicación se hará constar la identificación del trabajador y del pagador de los rendimientos del trabajo, la fecha de entrada en territorio español y la de comienzo de la prestación del trabajo en ese territorio para ese pagador, así como la existencia de datos objetivos en esa relación laboral que hagan previsible que, como consecuencia de la misma, se produzca una permanencia en el territorio español superior a ciento ochenta y tres días, contados desde el comienzo de la prestación del trabajo en territorio español, durante el año natural en que se produce el desplazamiento o, en su defecto, en el siguiente.

2. La Administración tributaria, a la vista de la comunicación y documentación presentadas, expedirá al trabajador, si procede, en el plazo máximo de los diez días hábiles siguientes al de presentación de la comunicación, un documento acreditativo en el que conste la fecha a partir de la cual se practicarán las retenciones por este Impuesto.

3. El trabajador entregará al pagador de los rendimientos de trabajo un ejemplar del documento expedido por la Administración tributaria, al objeto de que este último, a los efectos de la práctica de retenciones, le considere contribuyente del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a partir de la fecha que se indique en el mismo.

4. Recibido el documento, el obligado a retener, atendiendo a la fecha indicada, practicará retenciones conforme establece la normativa de este Impuesto.

5. Cuando el interesado no llegue a tener la condición de contribuyente por este Impuesto en el año del desplazamiento, en su autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes podrá deducir las retenciones practicadas a cuenta de este Impuesto.

Halaber, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauko 30. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar bada eta langilea egoitza atzerriara aldatzen duen urtean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergadun bihurtzen ez bada, zerga horren zioz aplikatzen diren atxikipeanak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

Bigarren atala Higigarrien kapitalaren etekinak

110. artikulua.- Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Higigarrien kapitalaren etekinetan egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, atxikipen oinarriari %18ko ehunekoa aplikatuko zaio.

111. artikulua.- Finantza aktiboen kontzeptua eta sailkapena.

1. Finantza aktiboak dira besteren kapitalen erakarpen eta erabileraren ordezkagarri diren balore negoziagarriak, haiek dokumentatzeko modua gorabehera.

2. Finantza aktiboek etekin inplizitua dutela ulertuko da haiek jaulkitzean, lehenengoz kokatzean edo endosatzean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaeagunean itzuli beharrekoaren arteko diferentziaren bidez sortzen badute etekina, besteren baliabideak erakartzeko erabiltzen diren balore higigarrien bitartez osorik edo zati batean eta inplizituki finkatutako etekina duten eragiketetan.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin inplizituetan sartuko dira.

Ez dira etekin inplizituetan sartuko kokapen primak edo hobariak, jaulkipen prezioaren gainekoak, baldin eta merkatuko praktiken barruan kobratzen badira eta xedapen honetan aipatutako finantza aktiboak jaulkitzen eta zirkulazioan jartzen dituen finantza bitartekari edo kokatzailearentzako diru sarrerak badira oso-osorik.

Etekin inplizitua duen finantza aktibotzat joko da igorpena egiteko edozein tresna, bai eta merkataritzako eragiketetan endosua edo eskualdaketa egiten den uneaz gero sorrarazitakoak ere, salbu eta endosu edo lagapena hornitzaileentzako kreditu baten ordain gisa egiten denean.

3. Etekin esplizitua duten finantza aktibotzat hartuko dira aldian-aldian korrituak sortzen dituztenak, bai eta hirugarrenei norberaren kapitalak lagatzearen truke ituntzen den beste edozein ordain ere, baldin eta ez bada etekin inplizituen kontzeptuan egokitzen, aurreko idatz zatian azaldutakoaren arabera.

4. Etekin mistoa duten finantza aktiboak etekin esplizitua duten finantza aktiboen araubideari lotuko zaizkio urtean sortzen duten benetako etekin esplizitua jaulkipenean indarrean egon den erreferentzia tasaren bestekoa edo gehiago denean, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzulketaren baldintzetan modu inplizituan beste etekin batzuko ere finkatu. Erreferentziako tasa hori, egutegiko hiru hileko bakoitzean, aurreko hiru hilekoan Estatuaren hiru urterako bonuen azken enkantean atera den batez besteko prezio ponderatu eta birlidu dagokion tasa efektiboaren %80 izango da, finantza aktiboek gehienez lau urteko epea badute; finantza aktiboek lau urtetik gorako eta gehienez zazpi urteko epea badute, berriz, Estatuaren bost urterako bonuen enkantearen emaitza hartuko da kontuan, eta finantza aktiboek epe luzeagoa badute, Estatuaren hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkantearen emaitza. Eperen baterako erreferentzia tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epetik hurbileneko epea aplikatuko da.

